

BALIO PROPOSAMENA (aterki lehorgailua)

Guk, Malena Hercek, Adriana Azkonak, June Garagarzak, Irune Formosok eta Jokin Mitxelenak “Oreretako Ekintzaileak” taldea osatzen dugu. Aterkiak modu eraginkor eta modu erosoan lehertzeko aterki-ontzi lehorgailu automatiko bat proposatzeko asmotan gaude. Gure aterki-ontziaren bereizitasuna honakoa da: aterkia ontzian sartu eta momentuan lehortuko da, inongo hezetasunik ez urik utzi gabe. Gure produktua oso erabilgarria izango da egun euritsuetan, izan ere, aterkien hezetasun guztia kentzeko ahalmena izango du, eta beraz, milaka pertsonen egunerokoa errazteko.

Gure produktua bezeroek erosiko balute euria maiz egiten duten herrialdetan, etxera edota leku itxi batera sartzera aterkiak plastikozko sorrotxoetan sartu beharrean ez litzateke beharrezkoa izango, izan ere aterkia momentu batean lehortuko litzakeelako. Gainera, modu honetara plastikoen erabilera murriztuko genuke. Beraz, leku itxietako lurrak bustita egotea saiestuko genuke, modu ekonomikoan eta erabilgarrian.

Aterki-ontzi hau Dayson esku-lehorgailuaren antzera funtzionatzen du. Kasu honetan aterkia sartu eta aire korrante baten bidez aterkiak bira egingo du azkar batean lehortuz.

Gure produktua **nobedadea** izango da merkatuan, izan ere, produktu originala da, ez delako aurretik entzun aterkiak lehertzeko ahalmena duen gailu bat asmatu denik. Aldi berean, erabilgarritasun handia izan dezake, batez ere euritsuak diren zonaldeetan, esate baterako, Euskal Herrian. Horrez gain, nobedade handia izan daiteke betidanik tradiziozkoa izan den produktu bat (aterkiak gordetzeko ontzi bat) produktu berri eta moderno batean bilakatu dugulako, izan ere, orain, eraikinak eta etxebizitzak ez bustitzea ahaleginduko du produktu honek.

Aterki ontzia **pertsonalizatzeko** aukera ere emango genuke, tamainaren arabera, modelo bat edo beste sortuko genituzke, baita estiloaren arabera eta kolore ezberdinak eraikiko ditugu, modu honetara, bakoitzak gehien gustuko duena aukeratu dezake.

Beste aldetik, gure **lana erraztuko** luke. Leku itxietara sartzera aterkiak ez litzatekeelako lurra bustiko, horrek garbiketan erraztuko luke. Gainera, gure produktuak aterkiak momentuan lehortzen dituenek, ez litzake aterkietako ontzia urez beteta egongo, beraz lana errazten da leku itxiaren atal hori ez delako garbitu behar. Horrez gain, gaur egungo plastikozko xorrotxoekin alderatuta, lana erraztuko luke berziklatu gure produktuarekin berziklatu egiten dugulako.

Balio kualitatiboari dagokionez, **diseinuari** dagokionez diseinu ezbedinak egongo lirateke, alde batetik, indibiduala, aterki bakarra sartzeko aukera ematen duena, etxetan erabiltzeko egokiena dena. Beste alde batetik, eraikin handietarako, adibidez, museo, enpresa, zinema... kolektiboak egongo lirateke, hau da, aterki bat baino gehiago denbora berean lehertzeko. Aterki bakoitza kabina moduko batean sartuko litzateke eta horrela ez lirateke ilera luzeak sortuko.

Balio kuantitatiboari dagokionez, **prezio** onean salduko lirateke, hasiera batean prezioa deskontuarekin merkaturatuko dugu. Ondoren, emaitzak bilduko ditugu eta horren arabera prezioa igoko dugu edo prezioa mantenduko dugu. Hala ere arrakasta handia badu gure prezio normalean jarriko dugu, beti ere merkaturako prezioa kontuan hartuz. Halaber, aterki lehorgailuaren tamaina, diseinu, pertsonalizazio, eta abarren arabera prezioa igo edo jaitsi egin daiteke.

Gaur egun aterkiek ez bustitzeko plastikozko poltsa bat jartzen dituen makinak daude baina horrek batzuetan ez du arazoa konpontzen. Egoera hori ikusita, guk aterkiak guztiz lehortzen dituen makinak salduko genituzke arazo horri aurre egiteko. Horri esker, jende gehiagoren eskura jarriko genuke makina hau, beraz **eskuragarritasuna** eskainiko genuke.